

# Ezpalak

JON TORNER

**Aritz Gorrotxategi** *Zaldi hustuak* izenburuko bere bigarren poema liburua kaleratu du Erein argitaletxearekin. Troiako zaldia izan du abiapuntu bizitzaz eta heriotzaz mintzo diren poemak idazterakoan. Bestalde, Juan Luis Zabalak txirindulari baten kezka eta zalantzak bildu ditu *Bideak, aldapak eta bihurguneak* izeneko narrazio laburrean. Elkarren Bizi Taupadak sailean argitaratu du gazteentzat idatzitako lana.

**Pedro Iturralde** saxofoi jotzaileak jasoko du 2007ko Vianako Printzea saria. Hala erabaki du Nafarroako Kultura Kontseiluak. Kideek bozketa bat baino gehiago egin behar izan zuten sariduna aukeratzeko. Beste lehiakideak Barricada taldea, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioko zuzendari ohi Pascual Aldabe eta Alfredo Landa aktorea ziren.

**Ismaël Lo** musikari senegaldarra Donostiako Victoria Eugenia antzokian izango da apirilaren 22an. Bezperan, Putumayo diskoetxeak antolatuta, Acoustic Africa kontzertuaz gozatzeko aukera izango da. Hiru musikariek hartuko dute parte emanaldi horretan: Habib Koité malitarrak, Vusi Mahlasela hegoafrikarrak eta Boli Kostako Dobet Gnahorék.



**Maddi Oihenart** kantari zuberotarrak *Hari Biru* izeneko diskoa kaleratu du Elkar argitaletxearekin. Bere izenean agertzen den lehenengo diskoa bada ere, kantariaren esanetan hau ere ez da bakarkakoa. Bestalde, Mixel Ducauk eta Caroline Phillipsek hamabi abestiko *Duo* lana kaleratu dute.

**Thierry Malandain** koreografoaren *Gari Beltza* obra estreinatuko du Ballet Biarritz Junior 2 konpainiak hilaren 19an eta 20an Donostiako Gazteszena aretoan.

## Miarritzeko III. Kaleko Arteen Jaialdia

Maiatzaren 17tik 20ra bitartean antzerki ikuskizunak izango dira protagonista Miarritzeko kaleetan. Orotara hamalau taldek parte hartuko dute Festival des Arts de la Rue - Kaleko Arteen Jaialdiaren hirugarren edizioan. Hamaika frantziarrak dira, bat madrildarra eta bi euskaldunak, Deabru Bel-



tzak eta Théâtre du Versant. Garbitxuk zuzentzen duen konpainia bizkaitarrak *Bande Déplacée* ikuskizuna esterinatuko du hilaren 19an, eta Miarritzeko Théâtre du Versant taldeak *Les chevaliers de la Lune* eta *La foire aux passions* obrak eskainiko ditu 17an eta 20an. Miarritzaren arituko den konpainia bakoitzak bizpahiru saio emango ditu.

Irati Jimenezek *Beterriko Liburua* aldizkarian, «Uste dut literatura erakusteko modua (ikastetxeetan...) ez dela oso egokia, eta batzuetan, hipokritak ere bagarela. Esate baterako, guraso askori entzungo diozu kezka hori, 'nire semeak edo alabak ez du irakurtzen'. Baina zuk irakurtzen al duzu? Esan nahi da, nik asko irakurtzen dut etxeokak beti ikusi ditudalako irakurtzen eta irakurtzen zuten horrekin gozatzen (...) Horrez gain, nik uste dut ikastetxeetan literatura irakasten XIII. mendeko idazleetatik hasteak ez duela zentzu handirik. Zer gustatzen zaie 10 urteko umeei, *Harry Potter*? Bada, eman diezaiegun *Harry Potters*».

Ander Lipusek *Xirika* kazetan: «Nahiago da antzerkia entretenimendu bezala erabili beste gauza batzuetarako baino. Nik ez dut horretan erori nahi izan eta zentzu horretan, ADEL (Arte Drama Euskal Laborategia) nire ibilbidearen beste puntu koherente bat dela uste dut, ez bainago batere ados arte hau maneiatzeko moduarekin. Gure lana ez da ilusio kontu bat. Gure lana ez da pailazoarena egin eta jendeari barre eragitea. Teatrona dedikatzen garenok, ofizio bat dugu eta euskal kulturaren ere beharrezkoa da garbi uztea gure lana oso serioa dela, baina hori, gure kontu dago».

Lurdes  
leria

ileapaindegia

La Salle, 8  
20140 ANDOAIN  
Telf.: 943 300 360

## Abarrak

JON TORNER

Sexua bizitzeko bost (milaka) manera,  
bost (ehunka) emakumek kontatuta**Obra:** *Emakumeak izarapean***Egileak:** Lurdes Bañuelos / Mireia Gabilondo**Aktoreak:** Teresa Calo, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Pilar Rodriguez eta Asier Hernandez**Eszenografia:** Fernando Bernués**Zuzendaritza:** Mireia Gabilondo**Ekoizpena:** Tanttaka Teatroa**Lekua eta eguna:** Zelai Aristi aretoa (Zumarraga), 2007/04/13

Bost adin eta bost gizarte maila ordezkatzeko dituzten emakumeak dira *Emakumeak izarapean* obrako protagonistak. Sexua —eta haren ausentzia— bizi eta sufritzeko hamaika manera erakusten dituzte, isiluneek nabarmendutako eszena itogarriak eta barrea eragiten duten pasadizoak tartekatuz. Oro har, antzezlan osoan zehar oreka egokia lortzen da, eszena eta eszena artean musika ederki baliatuz. Agian, ikusle batzuek komedia ukituko pasarte gehiago egotea nahiko lukete, besterik ez bada, Aitziber Garmendiak antzeztutako pertsonaia saltseroaren ateraldi eta keinuez luzeago gozatzeko. Baina zenbaitzuk uste genuenaren kontra, *Emakumeak izarapean* ez da komedia hutsa. Sexu kontuak ez baitira beti irri egiteko motibo, ezta gutxiago ere. Eta hori ederki islatzen du antzezlanak.

Bost emakume dira protagonista. Baina ikusle guztiak identifikatuko dira emakume horiek esandako zerbaitekin edo bizi duten esperientzia batekin. Sexua —eta maitasuna— guztiok buruan dugun zerbait delako. Buruan, baina ez ezpainenetan. Hori da obraren helburuetako bat.

Sexuaz hausnartu eta hitz egin dezagun bultzatzea. Ez dakigu lortuko duen. Hitz egitearena diogu.

Hausnartzearena ziurrenik bai. Hamaika koloreko ispiluak ageri dira obran, eta ziur horietako batean (gutxienez) zuen aurpegia islatuta ikusiko duzuela. Hamaika koloreko ispiluak, kolore zuria nagusi den eszenatokian. Leiho handien zuria, izaren eta burukoien eta aulkien zuria. Eszenografia sugerentea osatzen dute gauza horiek guztiak. Azpimarratzekoa da, bestalde, Aitor Hernandezek betetzen duen papera. Paperak. Senarra baita, terapeuta, fruta saltzailea, apaiza, *taichi* irakaslea... eta zuzen betetzen ditu guztiak, erregistro batetik bestera abileziaz salto eginez.

Bost emakume dira protagonista. Baina antzezlanak 350 euskal emakumek sexu harremanen inguruan egindako aitorpenak ditu oinarri; 350 emakumeren artean egindako galdeketa bereziak. Ez dakigu kopuru horrek (edo gaiak) gizonezkoren bat kikilduko zuen edo zer, baina Pilar Rodriguez aktoreak obrari buruz esandako zerbaitek harritu egin gaitu: "*Emakumeak izarapean* ez dago gizonen aurka idatzita". Obra ikusi ostean gizonezko bakar batek hala dela pentsatzen badu, gaiari buruz uste baino gehiago hausnartu beharko dugu.

**Jantziak,  
osagarriak...**

**615 73 21 12**

**Deitu eta katalogoa eskatu !!!**

**www.istilu.com**

**istilu**